

FROILAN ELESPE PARKE BOTANIKOAREN 10. URTEBETETZEA

Bere **10. urtebetetzea** dela eta Lasarte-Oriako Udalari gogoarazi nahi diogu **Froilan Elespe parke botanikoaren** zergatia. Web orrialdean eta kartel informatiboan agertzen den bezala, parkearen helburu nagusia bertan dagoen hezegunearen babes da, eta honekin batera bertan bizi diren bertako espeziak (igel arrunta, suge biperakara, lertxuntxo txikia, lertxun hauskara, apo arrunta, Schreiber muskerra...) hauetako gehiengoa hezegunean **desagerturik** edo egoera larrian.

Idatzi honekin parkeak duen egoera salatu nahi dugu, kanpotar diren espezieen inbasioarekin hasiz, hauen artean, Floridako dortoka, urre-arraina eta Amerikako karramarroa, guzti hauek klandestinoki sartuak. Espezie hauek hezegunea inbaditzen joan dira, espezie autoktonoei kalte eginez, eta ondorioz, desagerraraziz. Modu honetan, anfibioak ezin dira putzuetan ugaltu bertan dagoen izurritearengatik. Era berean, anfibioetaz elikatzen diren espezieak, suge biperakara bezala, bere desagertpena arte bakandu den espezie da, edo populazio oso urrikoak eta ziur asko muturrekoak.

Nabarmendu behar den beste atal bat hiritarrek duten **sentsibilizazio falta** da, izan ere, oso ohikoa da animaliei jaten ematea, zaborra parkearen perimetroaren barruan botatzea edo etxeko animaliak hezegunean bainatzea eta hegaztiei molestatzea bezalako ekintzak ikustea.

- Zaborra: bizilagunek parkera botatzen duten zaborrarekin egiten duten arreta gutxia salatu nahi dugu. Ez gaude bakarrik plastikozko poltsaz ari, baizik eta, freskagarri potoez, lixagailuz, supermerkatuko erosketarako karroaz, piknik-eko aulkiez, arrantzarako tresneria, etb.
- Txakurrak: honekin jarraituz, bizilagun batzuk beraien etxeko animaliekin duten artagabetasunaz hitz egin behar dugu, izan ere, txakurtxo hauei izugarri gustatzen zaie hezegunean bainu bat hartzea eta egunero bertako hegazti-fauna ikaratzea, hesia egoera egokian egongo balitz, seinale egokiak egongo balira eta zaintza egongo balitz, zailtasunez gertatuko lirateke honelako arazoak.
- Jaten ematea: parkean dauden animaliei jaten emateak, bizilagunek duten ez-jakintasunarengatik da, izan ere, hezegunean dauden hegaztiei jaten ematen dietenean ondo ari direla uste dute, ostera, animali aloktonoak eta arratoiak elikatzen dituzte.

Janariaren presentziak ez du bakarrik karraskarien atentzioa deitzen, baita ere karramarro amerikarraren presentziak, arratoiak hauetaz elikatzen baitira. Konponbide egoki bat espezie inbaditzailearekin akabatzea izango litzake eta baita ere, hezegunera iristen den zabor/janariarekin, beraz herriak dituen bi arazo konponduko genituen: gehiegizko arratoi populazioa eta kutsagarria den fauna exotikoarekin, hezegunearen bizitza naturalarentzat hain kaltegarria dena .

Beste aldetik, esan beharra dago **parkeak bere izaera didaktikoa galdu egin duela**, izan ere, bandalismoaren erruz, kartelak hondatu eta suntsitu dira, gaur egun parkearen inguruan aurkitu daitezke, hezegune txikian esate baterako. Eta Udalak ez du ezer egin 10 urte hauetan berreskuratu ahal izateko.

Baita ere esan behar dago **hezegune txikiaren** lehortzea oso nabarmena dela urte guztian zehar. Euri asko dauden hilabeteetan bakarrik betetzera iritsi daiteke,



baina denbora laburrean berriro lehortzen da. Hala ere, karramarro amerikarrak putzu hau ere kolonizatzen lortu du, anfibioentzako lekuri utzi gabe.

Beraz, **Lasarte-Oriak Udalari honako hau eskatzen diogu** kokaleku hau berreskuratu al izateko, bere fauna autoktonoa ere kontuan izanda:

1.- Parkeko fauna aloktonoaren ezabaketa, batez ere, karramarro amerikarra, modu honetan bertako espezieek rekolonizatzeko aukera izan dezaten.

2.- Parkeko azpiegiturak berritu daitezen:

- Zuhaitz bakoitzaren ondoan zeuden kartel didaktikoak, bandaloek suntsitu eta abiatu zituztenak.
- Hezegunearen inguruan dagoen hesia berritu eta hobetu, izan ere, txakurrek erraz sartzen dira hezegunearan.
- Abisuzko kartelak hezegunearen inguruan: fauna autoktonoa askatzea debekatua, animaliak elikatzea debekatua eta txakurrak sartzea debekatua dagoen kartelak. Abisuzko kartel bakarra parkearen sarrera nagusian, non gaur egun ez den inor gelditzen hau irakurtzeko.
- Arestian aipatutako debekuntza eta ohartarazpen kartelak parkeko sarrera bakoitzean jartzea.
- Parke botanikoaren eremu barruan zakarrontziak jartzea proposatzen dugu, zakarrontziak tapa bat izan beharko dute zaborra haizearekin joan ez dadin. Nahiz eta printzipioz hauen instalazioen kontra gaude, gure ustez hiritar bakoitzak bere zaborren arduradu izan behar du eta behar duen lekuan bota behar ditu, paretik kanpo dauden zakarrontzietan edo euren etxeetan. Egia esanda, parke urbano-periurbano bat izanik, horrelako ekintzak sentsibilizazioaren bidez bitarteko epe batean lortu daiteke.

3.- Benetan hiritarrei hitzaldi, erakusketa eta beste hainbat jardueren bidez sentsibilizatzea oso garrantzitsua dela uste dugu.

4.- Zaintza.

5.- Parkearen biodibertsitatearen buruzko ikerketa bat burutzea, diagnosi modurako eta ingurugiroa lortzeko neurri bezala har dadila.

6.- Hezegune berriak sortu daitezkeen dauden inguruan, nahiz eta txikiagoak izan, modu honetan bertako espezieen presentzia erraztuko genuke.

7.- Gure ikus puntutik kudeaketa plan bat sortu beharko litzake eta baita hainbat ekintza lotzen dituen dokumentuak arestian aipatu ditugun puntual bezala.

Haritzalde Naturzaileen Elkartek

Froilan Elespe Parke Botanikoaren 10. urtebetetzean

ZER SALATU NAHI DUGU?

- Espezie inbaditzaile exotikoen presentzia: amerikar karramarroa, Floridako dortoka eta urre-arraina.
- Hezeguneko bertako espezieen desagertzea.
- Zaborra.
- Kartel didaktikoen hondatzea.
- Errespetu falta hiritarren aldetik parkearekiko.
- Hezegune txikiaren lehortzea.
- Jendeak animaliei jaten emateak, nahi gabe izurriteentzako mesedegarria (arratoi eta karramarroak).

ZER HOBETU NAHI DUGU?

- Gizakiarengatik sartutako espezie exotiko inbaditzaileen kanporatzea.
- Hezegunearen bertako ziren espeziak birpopulatu.
- Hesiak.
- Hezegune berrien sorkuntza.
- Abisuzko eta debekaturiko kartel gehiago sortu.
- Parkearen barruan zakarrontziak jartzea (tapadun zakarrontziak).
- Hiritarrak sentsibilizatzeko kanpaina egitea.
- Zaintza.
- Parkearen biodibertsitaterako ikerketa, hobekuntza eta berreskurapen proposamenekin.
- Lekuarentzat kudeaketa plana.

Harremanetarako: 609 420 438 edo naturzale[at]haritzalde.org



www.haritzalde.org